

ERABAKIA, 2026ko URTARRILAREN 12koa, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, ARGITARA EMATEKO 2026/2027 IKASTURTEKO MUGIKORTASUN DEIALDIA - SICUE PROGRAMA- IKASKETA EGONALDIAK EGITEKO ESPAINIAKO BESTE UNIBERTSITATE BATEAN.

SICUE mugikortasun programaren helburua da sustatzea unibertsitateko graduetaiko ikasleek mugikortasunerako duten eskubidea.

Horretarako, Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) errektorearen 2025eko urtarrilaren 27ko ERABAKIAN ezarritako ahalmenen arabera honako deialdi hau egiten du:

DEIALDIA

Graduko ikasleei zuzendua, SICUE programaren¹ 2026/2027 ikasturteko deialdiaren arabera eta EHUKo ikastegi bakoitzaren arau espezifikoaren arabera estatu barruan esleituko diren mugikortasun plazetara aurkez daitezten. Horretarako, oinarri hauek **XEDATZEN** dira:

OINARRIAK

1.-HELBURUA.....	2
2.-PARTE HARTZEKO PRINTZIPIO OROKORRAK.....	2
3.-PARTE HARTZEKO MUGAK.....	3
4.-PARTE HARTZEKO MODUAK.....	3
5.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA BEREZIAK.....	4
6.- KONTUAN HARTZEKO ALDERDI GARRANTZITSUAK.....	4
7.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA ERA.....	5
8.- IKASLEAK AUKERATZEA.....	5
9.- BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO ERABAKIAK.....	6
10.- EGONALDIAREN IRAUPENA.....	7
11.- IKASLEEN BETEBEHARRAK.....	8
12.- AKORDIO AKADEMIKOA.....	9
13.- MATRIKULA.....	11
14.- ESLEIPENA.....	11
15.- IKASKETAK AITORTZEA.....	11
16.- BEKAK ETA LAGUNTZAK.....	11

¹ Espainiako unibertsitateen arteko truke programa

1.- HELBURUA

Deialdi honen xedea da graduako eta gradu bikoitzeko ikasleak hautatzea EHUko Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak kudeatzen duen SICUE programan parte har dezaten 2026/2027 ikasturtean.

SICUE mugikortasun **programatik kanpo** geratzen dira master eta doktorego ikasketa planak.

2.- PARTE HARTZEKO PRINTZPIO OROKORRAK

SICUE programan parte hartu ahal izateko, aldebiko hitzarmen bat egon beharko da beste unibertsitate batekin, kasuan kasuko ikasketetarako. Hau da, ez da onartuko truke eskaerarik ez bada egin aldeaz aurretik hitzarmenik ikasleak joan nahi duen unibertsitatearekin. Era berean, ikasleak **nortasun agiria nazionala (NAN) edo atzeritarren identifikazio zenbakia (AIZ)** izan beharko du SICUE programako eskaera egiteko GAUR bere profilaren bidez.

Ikasleak, gainera, matrikulatuta egon beharko du EHUn, helburuko unibertsitatean egin nahi dituen ikasketei dagokien titulazioan, bai mugikortasunerako eskaera egiteko unean bai mugikortasunean zehar.

2.1.- BALDINTZA AKADEMIKOAK

2.1.1.- Gaindituta izatea jatorrizko unibertsitatean 45 kreditu **mugikortasun eskaera egiten den ikasturtearen aurreko ikasturteko irailaren 30eko datan.** Hau da, indarrean dagoen ikasturteko urtarri/otsaileko deialdietan lortutako kredituak ez dira zenbatzen.

Era berean, beste unibertsitate batzuetatik lekualdaketa bidez etorritako ikasleen kasuan, EHUn izan beharko dituzte gaindituta 45 kredituak **mugikortasun eskaera egiten den ikasturtearen aurreko ikasturteko irailaren 30eko datan.**

2.1.2.- **Eskaera egiten den unean beste 30 kreditutan ere matrikulatuta egotea.**

Salbuespen modura, parte hartzeko baldintza orokorrak eta akademikoak berrikusi ahal izango dira, baita malgutu ere, baldin eta delako ikaslea goi mailako eta errendimendu handiko kirolaria bada, osasun arrazoiak direla eta udalerri jakin batera lekualdatu behar badu, edo genero indarkeriaren biktimia bada (edo antzeko egoeraren batean badago).

Halakoetan, onura horiek baliatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da epearen barruan egitea eskaera, zein unibertsitatetara joan nahiko lukeen adierazita. Horrez gain, ikasleak egiaztatu beharko du goi mailako eta errendimendu handiko kirolaria dela, frogatu beharko du udalerri jakin batera lekualdatzea eragin duten osasun arrazoiak dituela, edo egiaztatu beharko du genero indarkeriaren biktimia dela (edo baliokidetzat jo daitekeen beste edozein egoeratan dagoela); eta aurkeztutako eskaera justifikatu beharko du.

3.- PARTE HARTZEKO MUGAK

Ikasle berak ezin izango du SICUE truke bat baino gehiago egin unibertsitate berean, ez eta ikasturte berean ere. Dena den, unibertsitate batekin SICUE trukea eginda daukan ikasle batek berriro egin ahal izango du trukea unibertsitate horretan, betiere beste ikasketa batzuk egiten ari bada eta beste ikasturte batean egiten baditu.

SICUE mugikortasun programa batean inoiz parte hartu ez duen ikasleak lehentasuna izango du plaza bat lortzeko, SICUE programaren bigarren egonaldia eskatzen dutenen aurretik, titulazio berean edo beste batean. Hau da, noizbait SICUE programan parte hartu duten ikasleak programa horretan inoiz parte hartu ez duten ikasleen atzetik egongo dira plazak banatzerakoan.

Inola ere ez da onartuko, modalitatea edozein dela ere, titulua edo zikloa burutzeko behar diren kredituen % 50 baino gehiago EHUtik kanpo egitea; ez eta titulu edo ziklo osorako ezarritako iraupenaren % 50 baino gehiago EHUtik kanpo egitea. EHUtik kanpoko gehieneko egonaldia kalkulatzeko, derrigorrezko praktikak eta Gradu Amaierako Lanak ez dira kontuan hartuko, eta horietarako beste egonaldi batzuk egin ahalko dira.

SICUE ez diren programetan egindako mugikortasunak ez dira kontuan hartuko SICUE plazak esleitzeko lehentasunak ezartzean, salbu eta ikaslea matrikulatuta dagoen ikastegiak horrela erabakitzen badu.

Gradu bikoitzeko titulazioak ikasten dituenak SICUE mugikortasuna aukeratu ahal izango du, baldin eta unibertsitateen arteko aldebiko akordioak badaude huraosatzen duten graduetak baterako edo titulazio bikoitzerako.

Ikasleak SICUE mugikortasun batean parte hartzen badu titulazioetako batean, ezin izango du beste batean parte hartu geroago. Kontua da SICUE ikasle eskatzaileen arteko ekitatea bermatzea, gradu bikoitzeko ikasleak aukera gehiago ez izateko. Ikasleak mugikortasun bakarra egin ahal izango du, gradu bikoitzean edo huraosatzen duten graduetak batean.

Oharra. – Ikasleak ezingo du hartu parte Nazioarteko Harremanen Bulegoak kudeatzen dituen programa bi baino gehiagotan ikasketak berberak badira.

4.- PARTE HARTZEKO MODUAK

Honako hauek dira **egonaldien iraupena** eta gutxienez egin beharreko kredituak:

- **Ikasturte erdia** (3, 4, 5 edo 6 hilabete): gutxienez **24 kreditu**
- **Ikasturte osoa** (9 hilabete): gutxienez **45 kreditu**

Ikasle bati egonaldi mota bakoitzean eskatzen den gutxieneko kreditu kopurua baino gutxiago geratzen bazaizkio ikasketak amaitzeko, mugikortasuna egin ahal izango du, eskatutako kreditu kopurura heldu ez arren, **betiere kreditu guztien matrikula egiten badu jatorrizko unibertsitatean eta guztiak SICUE akordio akademikoan jasotzen badira**, Gradu Amaierako Lanari edo praktikaldiari dagozkien kredituak barne, halakorik badago eta helburu unibertsitatean onartuta badaude.

OHARRA: 24 kreditu baino gutxiago geratzen bazaizkio, sei hileko bateko mugikortasuna egin ahal izango du, ez urte batekoa.

5.- PARTE HARTZEKO BALDINTZABEREZIAK

5. OINARRI honetan aurreikusitako talde desberdinei aplikatu ahal zaizkien erregimen bereziak aplikatzea ahalbidetzen duten inguruabarrak kontuan hartzeko, **ikasleek EHUko dagokien ikastegiko koordinatzailearekin jarri beharko dute harremanetan**, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta jakinarazi beharko diote GAUREN SICUE eskaera aurkeztu dutela, desgaitasun mota eta maila edo kasuan kasuko inguruabarra egiaztatzen duten dokumentazioa aurkeztuta.

5.1.- DESGAITASUNAK DITUZTEN IKASLEAK

%33ko desgaitasuna edo handiagoa daukaten ikasleek **kreditu kopurua murriztea** eskatu ahal izango dute. Eskaera horrekin batera jatorrizko unibertsitateko aniztasun eta desgaitasun gaietarako atalak egindako txostena aurkeztu beharko da. Era berean, libre dauden plaza guztien **%5 erreserbatuko da %33ko desgaitasuna** edo handiagoa aitortuta duten ikasleentzat.

Halakoetan, jatorrizko eta helburuko unibertsitateak ahaleginduko dira informazioa ematen, koordinatzen, eta jarraipen ahalik eta egokiena egiten, koordinatzailearen eta desgaitasunak dituzten ikasleei laguntza emateko atalen bitartez, desgaitasunak dituzten ikasleen trukeak ondo joan daitezten. Esandakoaren ildotik, ikasle talde horrek bete egin beharko ditu gainditutako kredituei buruz lehenago adierazi diren baldintzak.

5.2.- GOI MAILAKO ETA ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARIAK, OSASUN ARRAZOIENGATIK UDALERRI ZEHATZ BATERA JOAN BEHAR DUTEN IKASLEAK, ETA GENERO INDARKERIAREN BIKTIMAK

Egoera berezi hauetan dauden ikasleentzat (goi mailako eta errendimendu handiko kirolariak, osasun arrazoiak direla eta udalerrri jakin batera joan behar duten ikasleak, genero indarkeriaren biktimak, edo antzeko egoeraren batean daudenak) epeak luzatu egingo dira, 7. OINARRIAN xedatutakoaren arabera, betiere egoeraren larritasuna edota beharra behar bezala justifikatu bada.

Edonola ere, **eskaera ohiko epetik kanpo eginez gero, berau onartzeko, egiaztatu beharko da egoera bat-batean sortua dela eta asmoa oinarritzen duten egitateak egiazkoak direla**. Eskaera onartzeko, plaza libreak egon beharko dira izenpetutako hitzarmenetan, edo trukeari estaldura emango dion hitzarmen berri bat sinatu beharko da, eta helmugako unibertsitateak interesduna onartu beharko du.

2. OINARRIAN xedatutakoaren arabera, kolektibo hauetan dauden ikasleek **kreditu gutxiago** egin ditzaten onartu ahal izango da.

6.- KONTUAN HARTZEKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Helburuko erakundean egin beharko dira EHUk aitortuko dituen ikasketak, gure unibertsitatean ofizialki onartutako titulua lortzera bideraturiko ikasketa programaren barruan.

Egonaldiak, azterketa aldiak barne, jatorrizkoa ez den unibertsitatean egin beharko dira; alegia, beste probintzia eta beste metropoli barruti bateko "campus" batean. Horrek esan nahi ikasleak bizilekua aldatu beharko duela.

Ikasleak helburuko bost unibertsitate aukeratuko ditu gehienera, bere lehentasunen arabera ordenatuta. Behin SICUE eskaera GAUREn egin ondoren, **EZINGO** dira aldatu helburuko unibertsitateak **EZTA** horien arteko ordena **ERE**.

Helburuko unibertsitateak eska diezaioke SICUE ikasleari egin dezala unibertsitate horretako ikasleei matrikula egitean eskatzen dien **aseguru** berbera, mugikortasuneko ikaslea izan arren.

Ikasleak izango duen **azterketa deialdien kopurua** izango da helburuko unibertsitateak ikasturte bakoitzean irakasgai bakoitzerako zehaztuko duena.

Ikaslea helburuko unibertsitatean aurkeztu ahal izango da **ezohiko deialdira** edo jatorrizko unibertsitatean baliokidea den irakasgaira, baldin eta lehenago koordinatzaile akademikoak baimena ematen badu eta jatorrizko unibertsitateak hala egitea baimentzen badu.

7.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA ERA

Eskaera GAUR aplikazioaren bidez aurkeztuko da, UNIBERTSITATE TRUKEA atalean.

Ikasleek 2026-2027 ikasturterako eskaerak egiteko **epe orokorra 2026ko urtarrilaren 30an hasiko da, eta 2026ko otsailaren 13an amaituko da**.

Hala eta guztiz ere, 5.2 OINARRIAN jasota dauden salbuespenetan eskaerak egiteko epea **ekainaren 15era arte** luzatuko da.

8.- IKASLEAK AUKERATZEA

Ikasleak gaingidutako kredituen eta matrikulatutako kredituen gaineko baldintzak bete beharko ditu hautaketa prozesuan sartu ahal izateko. Baldintza horiek betetzen ez dituztenak prozesutik kanpo geratuko dira, eta ez dira pasatuko espediente akademikoa baloratzeko fasera.

Ikasleak aukeratuko dira kalifikazioaren batezbesteko notaren arabera. Berdinketa egonez gero, ohorezko matrikula gehien dituzten ikasleek izango dute lehentasuna. Berdinketa ez bada apurtzen, lehentasuna izango dute gaingiditu gabeko kreditu gutxien eta kreditu gaingiditu gehien dituzten ikasleek, ordena horretan. Batezbesteko notak kalkulatzeko kontuan hartuko dira haien ikasketako kalifikazioak, aurreko ikasturtera arte.

Azken deialdian lortutako kalifikazioa baino ez da hartuko kontuan, AURKEZTEKE izan ezik; kalifikazio hori ez da zenbatuko ez zenbakitzailean ez izendatzailean.

Ikasleen espediente akademikoko batezbesteko nota kalkulatzeko, formula hau erabiliko da: KALIFIKATUTAKO kredituen batura (hau da, edozein kalifikaziorekin gaingidutako kredituak eta gaingiditu gabeko kredituak) bider 0-10 eskalan lortutako kalifikazioen balioa eta zati ikasleari guztira KALIFIKATUTAKO kredituen kopurua.

$$Nota media = \frac{\sum (Créd. Calificados * nota (0 - 10))}{Total créditos calificados}$$

Egokitutako irakasgaien kasuan, jatorrizko ikastegian lortutako kalifikazioa zenbatuko da. Ez dira kontuan hartuko kalifikaziorik gabeko kreditu aitortuak.

Espedienteko irakasgaiek ez badute zenbakizko kalifikaziorik, baizik eta kalifikazio kualitatiboa, taula hau aplikatuko da:

Ohorezko matrikula	10,0 puntu
Bikain	9,0 puntu
Oso ongi	7,5 puntu
Nahiko	5,5 puntu
Suspentso	2,5 puntu

Plazak esleituko dira puntuazioaren arabera. Ezingo dira esleitu aldeko hitzarmenetan onartutako plazak baino gehiago.

9.- BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO ERABAKIAK

Eskaerak aurkezteko epea behin amaituta, aztertuko da interesatuek betetzen dituzten 2026/2027 ikasturtean mugikortasuna egiteko programan ezarritako gutxieneko baldintzak eta ikastegiek ezarritakoak.

Lehenik, **lehenengo esleipena** argitaratuko da, esleitutako plazekin, baztertutakoekin eta itxaron zerrendan dauden ikasleekin, eta onartzeko edo ukatzeko epea irekiko da. Bigarrenik, **bigarren esleipena** argitaratuko da, esleitutako plazekin eta plazarik gabeko ikasleekin, eta plaza onartzeko edo ukatzeko epea irekiko da.

Esleipenen ondoren (lehenkoa eta bigarrena) hilabeteko epea egongo da berraztertze errekurtsua aurkezteko. Ikasleek erreklamazio hori aurkeztu ahal izango diote erabakia eman zuen organoari berari, epearen barruan, kasu hauetan:

- Akatsa egin bada aurkeztutako dokumentuak txarto interpretatu direlako edo espediente akademikoa gaizki baloratu delako.
- Erabakitzeko funtsezkoak diren dokumentu berriak agertu edo aurkezten badira.
- Zalantzazko agiriak erabili badira erabakia hartzeko.
- Behar bezala justifikatutako beste arrazoren bat badago.

Prozedurak aurrera egiten jarraituko du egon daitezkeen errekurtsuak bideratzen diren bitartean.

Ondoren, **behin-behineko erabakia** argitaratuko da (onartutako eskabideen zerrenda, plazarik gabeko ikasleen zerrenda eta bazterketak), zeinaren bidez alegazioak aurkezteko epea emango den (gutxienez 10 egun eta gehienez 15 egun); ondoren, **behin betiko erabakia** argitaratuko da, eta horren kontra gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, eta/edo administrazioarekiko auzi errekurtsua hilabete biko epean.

GARRANTZITSUA. - Mugikortasun plaza lortu izanak **EZ** du esan nahi helburuko unibertsitateak ikaslea onartuko duenik nahitaez.

9.1.- ONARTZEA ETA UKO EGITEA

Prozedurako fase bakoitzean epe bat egongo da emandako plaza onartzeko ala plazari uko egiteko GAUR bere profilaren bitartez. Ikasleak ez badu onartzen plaza ala ez badio egiten uko plazari horretarako egongo den epearen barruan zigorra **ezarriko zaio**, eta hurrengo ikasturtean ezin izango du parte hartu Nazioarteko Harremanen Bulegoak kudeatzen dituen mugikortasun programetan. Era berean, ikasle batek lehendabizi plaza onartu baina gero uko egiten badio GAUR ez den beste bide batetik, Nazioarteko Harremanen Bulegoak programatik at utziko du eta zigor bera ezarriko zaio; hau da, hurrengo ikasturtean ezingo du truke programetan parte hartu.

Ikasleak **maiatzaren 8tik aurrera** egin nahi badio uko plazari, GAUR erabiltzeaz gain, **plazari uko egiteko inprimakia** bidali beharko du **helburuko unibertsitatera**, jakinaren gainean egon daitezen. Nazioarteko Harremanen Bulegoari ez zaio igorri behar uko egiteko inprimakia.

Uztailaren 16tik aurrera plazari uko egiten dioten ikasleei **zigorra ezarriko zaie**. Hori dela eta, komeni da ikasleek data hori baino lehenago hartzea behin betiko erabakia, zigorrak ez izateko. Bestalde, gogoan izan behar da egun horietan ikasleek matrikula egin behar dutela beren ikastegietan eta, beraz, erabakita izan beharko dute ordurako.

10.- EGONALDIAREN IRAUPENA

Egonaldiaren iraupena bat etorriko da aldebiko hitzarmenean adierazitakoarekin.

Deialdi honen barruan egonaldia murriztu (ikasturte osotik erdira) edo luzatu ahal izango da (ikasturte erditik osora), jatorrizko eta helburuko koordinatzaileak ados badaude eta horrek bidegabekeria konparatiborik ez badakarkio plaza eskatu duen beste ikasleren bati. Nolanahi ere, egonaldiaren murrizpena edo luzapena C inprimakian jasoko da.

Garrantzitsua: SICUE ikasleen egonaldiaren iraupena aldatzeko, ezinbestekoa izango da Leioako Nazioarteko Harremanen Bulegoari korreo elektronikoaren bidez aurkeztea SICUE **akordio akademikoaren truke-egonaldia luzatu edo murrizteko eskaeraren Eranskina – C inprimakia**. Inprimaki hori ikaslearen GAUR bere profilean edo webgunean aurkitu ahal da. **Epea hasiko da lehenengo esleipenean plaza onartzen den unean edo martxoaren 12tik apirilaren 1era arte (egun biak barne).**

Horretarako, lehen urratsa izango da hori bidaltzea ikaslearen datuekin eta haren sinadura digitalekin batera, baita EHUKo zentroko koordinatzailearenekin ere, sicue@ehu.eus helbide elektronikora. Bigarren urratsa, akordio akademikoa erakunde anfitrioiara bidaltzen denean (ikus 12 OINARRIA - AKORDIO AKADEMIKOA), eranskin hau erantsiko da, jatorrizko erakundearen koordinatzaileak berrikusi eta eranskinean horretarako emandako laukian sinatu ahal izateko.

Ez da onartuko epez kanpo egonaldiaren iraupena aldatzeko eskaririk. Salbuespen moduan, behin mugikortasuna hasita helburuko unibertsitatean, egonaldia murriztu ahal da baldin eta **idatzi** baten bidez arrazoia azaltzen bada (**ustekabeko arrazoia, ezbeharra, ezinbesteko kasua, eta ezusteko kasua**), eta arrazoi hori **justifikatzen duen dokumentazioa aurkezten bada**: osasun ziurtagiria, praktika edo lan kontratua eta abar. **Akordio akademikoko egonaldia murrizteko eranskina -C inprimakia-** ere aurkeztu beharko da, ikasleak eta bi koordinatzaileek behar bezala bete. Errektoreordetzak, eskaera aztertuta, erabakiko du eskaera onartzen duen ala ez.

11.- IKASLEEN BETEBEHARRAK

Ikaslearen erantzukizuna da helburuko unibertsitatean onartua izateko tramiteak egitea. Ikasleak adi egon beharko du unibertsitate bakoitzak ikasleak onartzeko eskaerak aurkezteko ezartzen dituen epeei (**kasu batzuetan online aurkeztu behar dira**) unibertsitate askok ez dituztelako onartzen epea kanpo bidalitako eskaerak.

Era berean, ikaslearen erantzukizuna da unibertsitatean egingo duen egonaldiako ostatua bilatu eta tramiteak egitea.

Ikasleak ez du tasarik ordainduko helburuko unibertsitatean, jatorrizko unibertsitatean ordaintzen dituelako. Hala eta guztiz, helburuko unibertsitateak diru kopuru txikiren bat eskatu ahal izango dio ikasleari zenbait gastutarako, hala nola aseguratuko, ikasleen sindikatuetan afiliatzeko edo materialerako (fotokopiak, laborategiko produktuak eta abar), baina bertako ikasleen baldintza berberetan.

Ikaslea ezarritako egunean **hasiko da** helburuko ikastegian. Hala egiten ez badu, mugikortasunari uko egin diola ulertuko da. Egoera hori berehala jakinarazi beharko dio ikasleak Nazioarteko Harremanen Bulegoari, horretarako dauden bideak erabilita; izan ere, jakinarazten ez badu, mugikortasun programetako hurrengo deialdiko hautaketa prozesutik kanpo geldituko da.

Ikasleak helburuko unibertsitatean errendimendu ona duela egiaztatu beharko du. Hots, **truke programako kreditu moduan matrikulatutako kredituen erdia gaititu beharko du, gutxienez, egonaldian**.

Ikasleak **egiaztatu** beharko du, horretarako egongo diren epeen barruan, egonaldia egin duela eta horren iraupena, egonaldi hasieraren ziurtagiria beteta (**F inprimakia: helduera ziurtagiria**) eta (**egonaldi amaieraren ziurtagiria**) (helburuko unibertsitateak sinatua eta zigilua jarrita). Ez badu egiaztatzen egonaldia egin duela, edota iraupena onartutako egonaldiarena baino txikiagoa bada, ez zaizkio aitortuko beste unibertsitatean egindako kredituak.

Ikasleak, gainera, **bete** eta **aurkeztu** egin beharko ditu, epearen barruan, bere mugikortasuna dela-eta EHUK eskatu ahal dizkion dokumentu guztiak (Ukoa adierazteko inprimakia, mediku ziurtagiria, alokairu kontratua, etab.).

Ikasleak era guztietako jarduera akademikoetara **joan** behar du, baita egonaldiko programazio akademikoari dagozkion proba eta azterketa guztietara ere **aurkeztu**.

Ikasleak behar besteko aurrerapenaz informatu beharko dira **hizkuntza koofizialean** ematen diren irakasgaiak eta gaztelania irakaskuntzan eta ebaluazioan erabiltzeko baldintzak ezagutzeko, ikasleen ezjakintasun-egoerak saihesteko.

Ikasleak trukearen iraupena aldatzen badu (SICUEk onartutako mugikortasunaren hilabeteak), **C inprimakia - akordio akademikoaren eranskinean** adierazi behar du SICUE egonaldia luzatzeko edo laburtzeko eskaera, horretarako egongo diren eremuak beteta (ikaslearen sinadura elektronikoa, jatorrizko eta helburuko unibertsitateetako koordinatzailearena, egonaldiaren hasierako eta amaierako datak. Adierazi beharko da lauhilekoa, luzapen edo laburpenaren arrazoiak eta jatorrizko koordinatzailearen onarpen data). Inprimaki hori GAUR aplikazioan eta Nazioarteko Harremanen webgunean aurkitu ahal da – SICUE programa 2026/2027. Eskaera aurkezteko epea **apirilaren 1ean** amaituko da (egun hori barne).

Ikasleak **sinadura elektronikoa** erabili behar dute sortzen dituzten dokumentu guztietan. 39/2015 Legearen arabera, elektronikoki sinatutako dokumentu eta akordio guztiak guztiz baliozkoak dira eta formatu digitalean gorde behar dira.

Ikasleak **GAUR aplikazioan onartu edo uko egin** behar dio emandako plazari,

aipatutako epeen barruan. **Plazari uko egiteko inprimakia maiatzaren 8tik aurrera** bidali behar du helburuko unibertsitatera.

Emandako SICUE plaza onartu aurretik, ikasleak **galdetu** beharko du, bai helburuko unibertsitatean bai ikasketak egiten ari den EHUko ikastegian, **ea egin ahal duen Gradu Amaierako Lana** mugikortasuna egiten ari den bitartean. Mugikortasunari uko egingo dioten ikasleek kontsulta hori egin ez zutelako, zigortuak izango dira eta ezingo dute egin mugikortasunik hurrengo ikasturtean. Gradu Amaierako Lanaren gaia eta tutorea esleitu ahal izateko eta lanaren defentsa egin ahal izateko, bete egin beharko dira helburuko unibertsitateak ezarrita dituen baldintzak. Hortaz, mugikortasunean parte hartu eta gradu amaierako lana akordio akademikoan sartu nahi duten ikasleek harremanetan jarri behar dira helburuko unibertsitateko koordinatzailearekin, jakiteko baldintzak zeintzuk diren.

Ikaslea **harremanetan jarri beharko da aurretiaz** helburuko unibertsitateko koordinatzailearekin, jakiteko **curriculumeko kanpoko praktikak** egiterik izango duen eta, hala bada, akordio akademikoan sartzeko praktikok.

Garrantzitsua: Helmugako unibertsitateak hartu beharko ditu bere gain SICUE programaren barruan praktikak egingo dituzten ikasleengatik Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioaren kudeaketa eta kostua.

11.1.- BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

Ikasleak ez baditu betetzen betebeharrak, inolako justifikaziorik emateke, ikasketen kontratua bertan behera gera daiteke eta, ondorioz, Nazioarteko Harremanen Bulegoak sustatzen dituen mugikortasun programetako hautaketa prozesuetatik kanpo geratu ahal da etorkizunean.

12.- AKORDIO AKADEMIKOA

Ikaslearen mugikortasunaren oinarria Akordio Akademikoa izango da. Dokumentu horretan azalduko da zer egingo duen ikasleak helburuko ikastegian, bai eta zeintzuk diren han egindako irakasgaien baliokideak jatorrizko ikastegian. Akordio Akademikoak bermatzen du jatorrizko ikastegiak aitortu egingo dituela egonaldiko emaitza akademikoak.

Hauxe da kontratu akademiko hori egiteko prozesua: helburuko unibertsitatean hasi aurretik, ikasleak Akordio Akademikoa zehaztu beharko du bere ikastegiko koordinatzailearekin, horretarako dagoen eredia erabilita. Akordio horretan agertuko dira helburuko unibertsitatean egingo dituen irakasgaiak eta kredituak, bai eta horien bidez aitortuko zaizkion EHUko ikasketa planeko irakasgaiak eta kredituak ere. Konpromisoa baliagarria izan dadin, ikaslearen eta koordinatzailearen sinadura elektronikoak izan behar ditu, bai eta baliozkotzeen arloko agintari eskudunarena ere.

Bestalde, nahitaezkoa da akordio akademikoa **ikaslearen GAUR bere profilaren bidez egitea**, nahiz eta aurretik paperean eginda eduki. Izan ere, konpromiso hori ikaslearen matrikulari eta espedienteari estekatuta geratuko da. Egiten ez bada, ikaslea ohiko ikasle moduan agertuko da matrikulatuta, mugikortasuna azaldu gabe. Hori gertatuz gero, ezingo zaizkio aitortu helburuko unibertsitateko emaitza akademikoak; hau da, ez da agertuko mugikortasun programa batean parte hartu duenik, eta emaitzak ere ez dira agertuko.

EPEAK:

- **2026ko uztailaren 15era arte** (egun hori barne): akordio akademikoa betetzea eta ikaslearen eta jatorrizko ikastegiaren sinadura elektronikoa (lehen lauhilekoa eta urte osoa).
- **2026ko uztailaren 29ra arte** (egun hori barne): akordio akademikoa betetzea eta helburuko ikastegiaren sinadura elektronikoa (lehen lauhilekoa eta urte osoa).
- **2026ko urriaren 28ra arte** (egun hori barne): akordio akademikoa betetzea eta ikaslearen eta jatorrizko ikastegiaren sinadura elektronikoa (bigarren lauhilekoa).
- **2026ko azaroaren 11ra arte** (egun hori barne): akordio akademikoa betetzea eta helburuko ikastegiaren sinadura elektronikoa (bigarren lauhilekoa).

AKORDIO AKADEMIKOA ALDATZEA: Inplikaturako hiru aldeek (ikaslea, jatorrizko ikastegia eta helburuko ikastegia) onartutako akordio akademikoak izaera ofiziala izango du eta loteslea izango da sinatzen dutenentzat. Akordioa aldatzeko aukera bakarra izango da seihilekoa hasi eta **hilabeteko epean**. Ikasleak zerbait aldatu nahi badu akordioan, EHUKo SICUE koordinatzaileari esan beharko dio, baimena eman diezaion. (Garrantzi handikoa da aldaketak egiteko epea kontuan hartzea)

OHARRA: tramite horren kudeaketa errazteko, akordio akademikoa aldatzen bada argi eta garbi adierazi beharko da zeintzuk diren sartzen diren irakasgaiak, kentzen direnak eta aldatzen ez direnak. Hori egiteko **C inprimakia** erabili behar da, Nazioarteko Harremanen webgunean aurkitu ahal dena (SICUE programa 2025/2026).

Akordio akademikoan sartutako kreditu eta irakasgaiak ikasketak osatzeko nahitaezko curriculumean egon behar dute. Arlo honetan, gogoan izan behar da, bat etorrita Gradu Ikasketetan Kredituak Transferitzeko eta Aitortzeko Arautegiko 12. artikulua dioenarekin, ikasturte bakoitzean gehienez ere 60 ECTS kreditu aitortuko direla mugikortasun ekintzengatik.

Hautazko irakasgaiak egin ahal izango dira helburuko unibertsitatean jatorrizko unibertsitateko ikasketa planean egon ez arren, eta ikaslearen EHUKo espedientean hautazko gisa agertuko dira.

Ikasleak **bere titulaziokoak ez diren irakasgaiak** gehitu ahalko ditu SICUE akordio akademikoan, betiere akordioa eginda duten antzeko titulazio batekoak badira, eta koordinatzaile guztiek baimena eman badute alde aurretik eta Nazioarteko Harremanen Bulegoak oniritzia.

Inola ere ez dira onartuko EHUn **gaindituta dauden irakasgaiak**, eta ezin izango da eskatu horiek aitortzea helburuko unibertsitatean egindako irakasgaien bidez. Ezingo dira egin, ezta ere, ikasketa planean eskatzen direnak baino kreditu gehiago, irakasgai bateko matrikula egitean kreditu kopurua gainditzen denean izan ezik.

AURKEZTU GABEKO IRAKASGAIK: matrikulatutako irakasgaiak egin ahal izango dira, baldin eta ikaslea azterketara aurkeztu ez bada eta kalifikazioetan "aurkezteke" agertzen bada. Irakasgai horiek jatorrizko unibertsitatekotzat hartuko dira, bai kalifikazioei dagokienez bai deialdiei dagokienez.

***Adi:** SICUE barruan bigarren mugikortasun bat eginez gero, ezingo dira sartu akordioan lehenengo mugikortasunean ikaslea aurkeztu **EZ** zen irakasgaiak, ezta gainditu gabekoak ere.

GAINDITU GABEKO IRAKASGAIA: baldin eta ikastegiko barne arautegiaren kontra ez

badoa eta ikastegiko koordinatzaile akademikoak hala baimentzen badu, akordio akademikoan gainditu gabeko irakasgai bat sartu ahal izango da, gehienez. Irakasgai bat baino gehiago sartuz gero, ez da aitortuko.

***Adi:** ikasleak bere ikastegian galdetu beharko du barne arautegiaren arabera zenbat DEIALDITAN IZAN DEZAKEEN IRAKASGAIA GAINDITU GABE SICUE mugikortasuna egiteko.

GRADU BIKOITZEKO IKASLEAK: Helburu unibertsitateak gradu bikoitz bera eskaintzen badu, ikasleak hura aukeratu beharko du. Eskaintzen ez badu, gradu bakarreko programetako batean lekua eska dezake.

13.- MATRIKULA

Jatorrizko unibertsitatean matrikula egin aurretik nahitaezkoa da jatorrizko unibertsitateak eta ikasleak **akordio akademikoa** sinatua izatea elektronikoki. Matrikula jatorrizko unibertsitatean egingo da, automatrikula erabiliz, horretarako argitaratuko diren datetan.

Trukean parte hartuko duten ikasleek jatorrizko ikastegian baino ez dituzte ordainduko matrikulako tasak, eta ez dituzte hartu beharko beren gain helburuko ikastegiko matrikulari lotutako gastu administratiboak.

14.- ESLEIPENA

Truke programa egiten ari diren bitartean ikasleak jatorrizko ikastegiko ikasleak izango dira ondorio guztietarako, helburuko ikastegiko ikasleen eskubide akademiko eta betebeharrekin.

15.- IKASKETAK AITORTZEA

Egindako ikasketak aitortu ahal izateko, helburuko unibertsitateak ikasle bakoitzaren ziurtagiria bidali beharko du jatorrizko unibertsitatara, helburuko ikastegiaren eredua erabilita eta behar bezala sinatuta. Agiri horretan agertuko dira, era esplizituan, ikasleak trukean lortutako kalifikazioak. Ahal dela, dokumentazioa bidaltzeko elektronikoki sinatutako dokumentuak igorriko dira.

Ikasle batek helmugako unibertsitatean ohorezko matrikula jasotzeko aukera badu, behar besteko aurrerapenaz jakinarazi beharko zaio jatorriko unibertsitateari, hala badagokio, ikaslearen espediente akademikoan horren berri jaso dezan. Horrekin lotuta, kontuan hartu behar da ohorezko matrikulak irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuaren esparruan kokatzen direla (Estatu osoan balioa duten unibertsitate titulazio ofizialetan kredituen Europako sistema eta kalifikazioen sistema ezartzen dituen) eta, hala eta guztiz ere, prozedura lehiatsuak direla, ohorezko matrikula kopurua mugatua delako legez (ikasturte bakoitzean irakasgai batean matrikulatutako ikasleen ehuneko bostek lortu ahalko dute, gehienez).

Helburuko unibertsitatean ikaslea aurkeztu ahal izango den deialdietako bakoitzean lortutako kalifikazioak jatorrizko unibertsitateari helaraziko zaizkio, aktak itxi eta 20 egun balioduneko epean.

16.- BEKAK ETA LAGUNTZAK

Estatuak ez du ematen ez bekarik ez laguntza ekonomikorik programa

honetarako, halakorik agertu ezean estatuaren aurrekontu orokorretan.

Baina ikasleek unibertsitateko ikasketak eta goi mailako bestelako ikasketak egiteko beka (beka orokorra) eskatu ahal izango dute 2026/2027 ikasturtean, betiere kasuan kasuko deialdian xedatutako baldintza akademiko eta ekonomikoak betetzen badituzte.

Erabaki edo akordio honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari, eta beraren kontra gorako errekurtsua aurkez dakioke Euskal Herriko Unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboari (EISBA) hilabeteko epean, berau jakinarazi/argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, horrek ezertan eragotzi gabe beste edozein errekurtsu jartzea.

Gorako errekurtsua jarri denetik hiru hilabete igaro badira erabakirik jakinarazi gabe, administrazioaren isiltasunez ezetsi dela ulertu beharko da, eta orduan administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan.

Leioan, 2026ko urtarrilaren 12an.

Iz.: **Gotzone Barandika Argoitia**
Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordea
Vicerrectora de Transferencia e Internacionalización